

ADMINISTRAZIO BALDINTZA BEREZIEN PLEGUA

I. KAPITULUA

KONTZERTU OROKORRAK

1. KONTRATUAREN LEGE-ARAU BIDEA

Plegu honek azaltzen duen kontratua kontratu pribatua da eta ez da araupetze harmonizatuaren arabera izapidetu behar, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak, 2014ko otsailaren 26koak, Espainiako lege-antolamenduari iraultzen dituenak, (aurreratzean, "SPKL") 20.1. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Beraz, kontratua arautzeko hurrengoei erreparatuko zaie:

- Prestatu eta adjudikatzeari dagokionez, SPKLren 115. artikulutik 187. artikulura bitartekoei, biak barne, SPKLk 318.b artikuluan zehaztutakoaren babesean; baita administrazio-baldintza berezien plegu honi eta azalaren zehaztapenei ere; azkenik, adjudikaziodunarekin formalizatu ondoren, kontratuan dauden itun eta baldintzei.
- Betetze, ondore eta suntsiarazteari dagokionez, zuzenbide pribatuko arauari. Gainera, 319. artikuluan xedatutakoarekin bat, honakoak aplikatuko zaizkio: ingurumen-, gizarte- eta lan-arloan betebeharreari buruzko 201. artikulua; gauzatzeko baldintza berezietan buruzko 202. artikulua; kontratuak aldatzeko ustezkoen inguruan 203. artikulutik 205. artikulura bitartekoak; lagapen eta azpikontratazioari buruz 214. artikulutik 2017. artikulura artekoak; eta kontratazioaren arrazionalizazio teknikoari buruzko 218. artikulutik 228. artikulura bitartekoak, baita 198.4 eta 210.4. artikuluetan xedatutako ordainketa-baldintzak ere. Era berean, hasieran hitzartutako baldintzetan zerbitzua ezin gauzatu izanagatik kontratua suntsitzeko arrazoia aplikagarria da, SPKLk 204., 205. eta 211. i) artikuluetan xedatutakoarekin bat ezin daitekeenean kontratua alda.

Edozein baldintzatan plegua, erantsitako agiriak edo aplikazio-araudia ez ezagutzeak ez du pertsona lizitatzailea betetzez salbuetsiko.

2. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea plegu honetako azalaren "A" ATALEAN deskribatutako zerbitzua da, baldintza tekniko berezien pleguak xedatzen dituen zehaztapen teknikoekin bat.

3. BALIO ZENBATETSIA, LIZITAZIOAREN AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN PREZIOA

Lizitazioaren gehieneko prezioa eta kontratuaren balio zenbatetsia azalaren "C" ATALEAN ageri dira, balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ) kanpo kasu bitan.

Kontratuaren prezioa adjudikazioaren ondorioz suertatutakoa izango da eta partida independente modura azalduko da BEZa.

Kontratuaren prezioan gainerako zergak, tasak eta kanonak sartuak egingo dira, betiere aplikagarriak izanez gero. Gauza bera gertatuko da plegu honetan aurrez ikusitako betebeharrak betetzeko kontratistak dituen gastu guztiekin ere: gastu orokorrak, finantzarioak, irabaziak, aseguruak, garraioa eta joan-etorriak, bere kargura dituen teknikarien ordainsariak, ikus-onetsiak, etab.

Adjudikaziodunaren kargura dira eta, beraz, OARSOALDEA, S.A.ri ezin zaizkio eskatu baldintza tekniko berezien pleguan zehaztutakoarekin bat, kontratua behar bezala gauzatzeko gastu guztiak.

4. PREZIOAK IKUSKATZEA

Azalaren "D" ATALEAN xedatutakoari erreparatuko zaio.

5. GAUZATZE-EPEA

Lanak gauzatzeko epea plegu honetako azalaren "I" ATALEAN ageri da, lanak kontratua formalizatu baino lehen ezin direla hasi alde batera utzi gabe.

Baldintza teknikoen pleguan berariaz lanen gauzatze epe guztia murriztea ahalbidetzen bada edo epe partzialak finkatuz gero ala jarduerak antolatutak azaltzen badira, halabeharrez bete beharko dira eskainiz edo finkatuz gero, hurrenez hurren.

Azalaren "N" ATALAK hala aurrez ikusten badu, kontratua amaitutakoan, aldean arteko adostasunez, kontratua luzatzea erabaki daiteke, beste denboraldi batez prestazioak errepikatzen. Iraupena hasieran aurrez ikusitakoa edo laburragoa izan daiteke.

6. ADJUDIKAZIO-PROZEDURA

Kontratua lehiaketa irekiaren prozeduraz adjudikatuko da eta ondorengo faseetan egituratuko da:

- (i) Lehenengo fasea ("eskaintzak aurkeztea"): pertsona lizitatzailerak dokumentazioa bi gutun-azalen barruan (A eta B) aurkeztuko dute.
- (ii) Bigarren fasea ("pertsona kontratista hautatzea"): eskaintzak ebaluatu ondoren, OARSOALDEA, S.A.k kontratua formalizatzeko pertsona lizitatzailerak hautatuko du.
- (iii) Hirugarren fasea ("formalizazioa"): OARSOALDEA, S.A. eta hautatutako pertsona lizitatzaileraren artean kontratua sinatuko da.

OARSOALDEA, S.A.k eta pertsona kontratistak informazioaren konfidentzialtasuna bete beharko dute plegu honetan xedatutako baldintzetan.

Kontratazio-organoa azalak "B" ATALEAN adierazten du.

II. KAPITULUA

LIZITAZIOA ETA ESKAINTZAK PRESTATZEA

7. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Proposamenak aurkezteko epea azalak "E" ATALEAN aipatzen dituen egun eta ordura artea irekia egongo da.

Proposamenak azalak "F" ATALEAN adierazitako tokian aurkeztuko dira.

Eskaintza aurkezteko, pertsona lizitatzailleak Sociedad Estatal de Correos erakundearen bidez postaz bidaltzea erabakitzen badu, postetxean bidalketaren eguna justifikatu beharko da, bulegoak berak emandako frogagiriaren bitartez. Frogagirian azaltzen den eguna betiere eskaerak aurkezteko epemuga baino lehenagokoa izango da eta, gainera, frogagiria erantsita, kontratazio-organoari posta elektronikoz iragarri beharko dio eskaintza bidali duela. Helbide elektronikoa honakoa da: **xsanchez@oarsoaldea.eus**.

Bi baldintzak betetzen ez badira edo bidali izanaren komunikazioa klausula honetan finkatutako gehieneko epea gainditu ostean jasotzen bada, eskaintza ez da onartuko. Postaz bidalitako eskaintzak OARSOALDEAREN ESKU egon beharko du proposamenak aurkezteko epemugara iritsi eta hurrengo 3 egunen buruan.

Proposamenak pertsona juridikoek edo fisikoek, Espainiakoek edo atzerrikoek, aurkez ditzakete, jarduteko gaitasun osoa badute eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatzen badituzte. Hala badagokio, Eusko Jaurlaritzak edo Estatuko Administrazio Kontrataziorako Kontsulta Batzarrak eman ostean, zerbitzu-enpresaren sailkapena aurkez dezakete, azalak "K" ATALEAN" aurrez ikusitakoaren arabera. Egoera hori ziurtatzeko, Kontratazioaren Europar Dokumentu Bakarraren (KEDB) ereduak aurkeztea ezinbestekoa da.

Halaber, enpresen elkarteek proposamenak aurkez ditzakete, xede horrez aldi baterako eratzen badira SPKLk zehaztutakoarekin bat. Elkarteak eratzen duen enpresa bakoitzak jarduteko gaitasuna eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala ziurtatu beharko ditu eta, horretarako, ondorengo baldintzetan aipatzen den dokumentazioa aurkeztu beharko du. Dokumentu pribatuan (IV. ERANSKINA) azalduko dira enpresen izenak eta gorabeherak, bakoitzaren partaidetza eta kontratuaren indarraldian OARSOALDEA, S.A.ren aurrean guztion ordezkaritza osoa izango duen pertsona edo erakundea. Azkenik, aldi baterako enpresen elkarteak osatzeko konpromisoa onartuko dute (APKLA Oren 24. artikulua). Dokumentua elkarteak eratzen duen enpresa bakoitzaren ordezkariak sinatuko du.

Pertsona lizitatzaille bakoitzak proposamen bakarra aurkez dezake, baina egokitzen jotzen diren konponbideen aldaerak ager daitezke. Horretarako, plegu honen azalak "J" ATALEAN aurrez ikusitako baldintzak kontuan hartu beharko dira.

Enpresak eskaintza aurkezten duenean, plegu honetako klausula guztiak eta kontratuaren gainerako dokumentuak oso-osorik, salbuespen eta baldintzarik gabe onartzen ditu. Halaber, aurkeztutako datu guztiak zehatzak izateari eta OARSOALDEA, S.A.rekin kontratatzeke baldintza guztiak betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena egiten du.

Konfidentzialtasuna: Beharrezkotzat jotzen bada, pertsona lizitatuzaileek, III. EREDUARI jarraiki, beren karpetetan eskaintzaren informazio eta alderdi konfidentzialak adieraz ditzakete, sekretu teknikoekin edo merkataritzaren arlokoekin duten loturan oinarrituta. Dena den, lotura justifikatzen duten arrazoiak azaldu beharko dira. Ez du inola ere halako izaerarik izango eskaintza ekonomikoak. Hirugarrenak lizitazio-proposamenari buruzko dokumentazioa lortzea eskatzen badu, OARSOALDEAK pertsona lizitatuzaileak adierazitako konfidentzialtasuna aitortzea bidezkoa al den balioetsiko du.

8. PROPOSAMENEN EDUKIA

Proposamenak gutun-azal itxian aurkeztuko dira eta sinatua egongo da. Azalaren buruan azaldutako espedientearen zenbakia adieraziko da, pertsona lizitatuzailearen izenarekin, eskaintza sinatzen duenaren izen-abizenekin eta hori egiteko izaerarekin batera. Pleguaren xede den lehiaketarekin zerikusia duten komunikazioetarako gaitu den helbide elektronikoa zehaztuko da.

Gutun-azal itxiaren barruan beste bi gutun-azal itxi sartuko dira. Bakoitza behar bezala identifikatuko da, A gutun-azala (proposamen teknikoa, KEDB, IV. eranskina eta V. eranskina) eta B gutun-azala (proposamen ekonomikoa) bereizi ahal izateko.

Bakoitzaren barruan hurrengoak sartuko dira:

- A gutun-azalean, proposamen teknikoa eta kaudimena izenekoan, proposamen teknikoa azalduko da, behar bezala sinatua eta data egokiarekin. Pertsona lizitatuzaileek beren proposamen teknikoetan dokumentazio guztia kontuan hartuko dute, OARSOALDEA, S.A.k plegu honetan zehazten diren balioztapen-irizpideekin bat baliozta ditzan.

Era berean, kontratazioaren europar dokumentu bakarra agertuko da, behar bezala osatu nahiz sinatu ostean eta data egokia ipini ondoren. Online zerbitzuaren bitartez OARSOALDEAK eskuratutako eredia erabiliko da eta Euskadiko kontratatzailearen profileko argibideak jarraituko dira.

Kaudimenaren zati bat pertsona lizitatuzailetik at dagoen pertsonari badagokio (azpikontratazioa), azpikontratutako pertsonak KEDB inprimakiak bereizita osatu beharko dituzte.

Pertsona lizitatuzaileak azpikontratutako dituen lanaren zatiak zehaztuko ditu eta eskaintako guztizko aurrekontuaren gainean azpikontratazioaren ehunekoa azalduko du. Amaitzeko, erakunde azpikontratatzen ezaugarri teknikoak adieraziko dira.

Era berean, "IV. eranskina - Ingurumen-konpromisoaren adierazpena" eta "V. eranskina - emakumeen eta gizonen berdintasunerako konpromisoaren adierazpena" sartuko dira, modu egokian osatu eta sinatu ostean.

Enpresa eskaintzaileek OARSOALDEARI pendrivea itzultzea eska diezaiokete, lehiaketaren ebazpena jakinarazi eta ondorengo 15 egunetan. Hala egiten ez badu, uko egiten diola ulertuko da eta une horretan OARSOALDEAK euskarria ezabatuko du, bulego-material bezala berrerabiltzeko.

II., III. eta IV. eranskinak bakarrik hurrengo kasuetan osatuko dira: banku-abala behar denean, konfidentzialtasun-klausulak daudenean eta aldi baterako enpresen elkartearen eratzenean.

A gutun-azalean proposamen ekonomikoarekin zerikusia duen ezer ez da sartuko. Hori eginez gero, eskaintza ez da onartuko eta lizitazio-prozesutik baztertuko zaio.

- B gutun-azalean, eskaintza ekonomikoa izenean, proposamen ekonomikoa paperean agertuko da. Ereduari jarraiki egin ostean, sinatu eta data egokia izango du. Aurkeztutako eskaintza bakoitzeko proposamen bana aurkituko da. Berdin dio oinarrikoa edo pertsona lizitatuak aurkez ditzakeen aldaerak ala hautabideak izatea, plegu honen azalak "J" ATALEAN modu horretan aurrez ikusten badu. Eskaintutako prezioan kontzeptu guztiak sartuko dira, edozein zerga edo gastu barne, balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ) izan ezik. Hori partida independentea izango da.

Zenbakiz eta hizkiz izendatutako zenbatekoak bat ez badatoz, azkenekoa nagusizatzen joko da.

Ahazteak, akatsak edo zirriborroak dituzten proposamenak ez dira onartuko, OARSOALDEA, S.A.k eskaintzan oinarrituz jotzen duen guztia argi eta garbi ezagutzea saihesten badute.

III. KAPITULUA

PERTSONA ADJUDIKAZIODUNA HAUTATZEA, ADJUDIKATZEA ETA FORMALIZATZEA

9. PROPOSAMENAK IREKI ETA AZTERTZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaitzen denean, pertsona lizitatuak aurkeztutako dokumentazioa kalifikatzeari ekingo zaio SPKLk xedatzen duen baldintzetan. Kalifikazioa kontratazio-organoak ala arduradun teknikoak egingo du, SPKLk 61.2. artikuluan zehaztutakoaren babesean.

Kontratazioaren Europar Dokumentu Bakarra (KEDB) ez badago edo osatugabea azaltzen bada, ez da pertsona lizitatuak onartuko. Akatsa materiala izanez gero, APKLAOk 81. artikuluan xedatutakoari jarraiki, hiru (3) egun balioudun emango dira zuzentzeko. Izapide horretarako komunikazioa posta elektronikoz gauzatu da pertsona lizitatuak eskaintzan eskuratu duen helbide elektronikoan.

Bidezkoa bada, KEDB zuzendutakoan, pertsona eskaintzaileen eskaintza teknikoak, eskatutako kaudimena dutela aitortu dutenenak, arduradun teknikoaren esku geldituko dira, onartutako proposamen bakoitzaren dokumentazioa objektibotasunez eta inpartzialtasunez baliozta dezan. Horretarako, administrazio-baldintza berezien pleguan adierazten diren adjudikazio-irizpideak kontuan hartuko ditu.

Aurreko jarduerak amaitzen direnean, kontratazio-organoak edo SPKLk 61.2. artikulua babesean izendatutako arduradun teknikoak egintza publikoan proposamen ekonomikoak irekitzeari ekingo dio. Eguna eta ordua kontratatzailearen profilean aditzera emango dira.

Jendaurrean irekitzean, kontratazio-organoak edo SPKLk 61.2. artikulua babesean izendatutako arduradun teknikoak pertsona lizitatzailerik aurkeztutako agiriaren kalifikazioari dagokion emaitza azalduko du. Aurrekoaren harira, proposamen onartuak, baztertuak eta horretarako arrazoiak aipatuko dira. Gero, automatikoki zenbat ezin daitezkeen irizpideen arabera eskaintzeki lortutako puntuak irakurriko ditu. Ondoren, proposamen ekonomikoak ireki eta irakurtzeari ekingo zaio.

Proposamen ekonomikoak ireki eta irakurritakoan, horiek pertsona lizitatzailerik bakoitzari dagokion iritzia araberako irizpideen balioztapen-txostenarekin batera kontuan hartuko dira. Nolanahi ere, txosten hori batzorde teknikoak egingo du, kontratazio-organoak izendatu ostean.

Proposamenek lizitazioaren oinarriko aurrekontua gainditzen badute, automatikoki baztertuko dira.

Proposamen baztertuen eskaintzak ez dute kontratuaren adjudikazio-prozeduran parte hartuko eta B gutun-azala ezingo da ireki.

10. PERTSONA KONTRATISTARI BURUZKO IRIZPIDEAK ETA HAUTAKETA

OARSOALDEA, S.A.k, betiere adjudikatu baino lehen, kontratua gauzatzeari uko egin diezaike edo adjudikazio-prozedura bertan behera utz dezake, kontratua prestatzeko arauetan ala adjudikazio-prozedura arautzen duten horietan konpon ezin daitezkeen arau-haustea antzematen badu.

Eskaintzak balioztatzeko oinarriko irizpideak Azalaren "L" ATALEAN ageri dira.

Ohiz edo neurritz kanpoko balioak dituzten eskaintzei dagokienez, Azalak "L" ATALEAN xedatutakoari erreparatuko zaio.

Bi edo proposamen gehiagoren artean berdinketa badago, SPKLk 147. artikuluan zehaztutakoa kontuan hartuko da.

Pertsonak balioztatu eta hautatzeko gehieneko epea bi (2) hilabetekoa izango da, proposamenak aurkezteko epea amaitzen den egunetik zenbatzen hasita. Epe horretan kalitate-prezio erlazio onena duen eskaintza aukeratuko da.

Epea erabakia jakinarazi gabe igarotzen bada, egokitzen joz gero, pertsona lizitatzailerik proposamena erretiratzeko asmoa azal dezakete.

Kalitate-prezio erlazio onena duen eskaintza hautatutakoan, kontratua formalizatu baino lehen, pertsona lizitatzailerik eta bestelako pertsonak, horien gaitasunak erabili behar badira, OARSOALDEA, S.A.n gehienez hamar (10) egun baliodunen buruan SPKLk 150. artikuluan eskatutako dokumentazioa aurkeztuko dute:

a) Kontratazioaren Europar Dokumentu Bakarrean (KEDB) aldez aurretik aitortutako kaudimenaren baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa.

b) Eskaintza sinatu duen pertsonaren NANA

c) Eratze-eskritura eta, hala badagokio, estatutuak aldatzeari buruzkoa, merkataritza-erregistroan edo aplikazio-araudiarekin bat dagokien tokian inskribatuak.

d) Lizitatzailleak ordezkariaren bidez jarduten duenean, ordezkaritza eta lizitazioan parte hartzeko gaitasunak baieztatzen dituen ziurtapen-agiria.

e) Zerga betebeharrak:

- Ziurtagiri positiboa, Zerga Administrazioaren Estatuko Agentziak egina, zerga-betebeharrak eguneratuak dituela adierazten duena, edo administrazio horren aurrean aitorpenik ez duela aurkeztu behar azaltzen duen erantzukizunpeko adierazpena.
- Ziurtagiri positiboa, Foru Ogasunek egina, zerga-betebeharrak eguneratuak dituela adierazten duena, edo aitorpenik ez duela aurkeztu behar azaltzen duen erantzukizunpeko adierazpena.

f) Gizarte Segurantzarekin betebeharrak:

- Ziurtagiri positiboa, Gizarte Segurantzako Lurralde Diruzaintzak egina, Gizarte Segurantzarekin betebeharrak eguneratuak dituela adierazten duena, edo salbuespenik azaltzeko erantzukizunpeko adierazpena. Horrez gain, lana egingo duten pertsonak Gizarte Segurantzaren alta emanak daudela aipatzen duen ziurtagiria.

g) Jarduera ekonomikoen gaineko zerga: Jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta emana egotearen eta ordainketak eguneratuak izatearen frogagiria. Xede horrez, azkeneko ekitaldiari dagokion ordainketa-gutunaren kopia aurkeztuko da. Zergaz salbuetsia egonez gero, justifikazio-adierazpena aurkeztuko da.

h) Aseguru-etxearen ziurtagiri egokiaren bitartez honakoak egiaztatzea:

- Azalaren "P" ATALEAN ezartzen diren baldintzetarako aseguruak indarrean daudela, estalduren irismena eta egokitzapena zehazteaz gain.

i) Behin betiko bermea osatu izanaren frogagiria: Azalak "H" ATALEAN hala aurrez ikusten badu. Bermea banku-abalaren bidez osatuko da eta I. ERANSKINEAN dagoen ereduari erreparatuko zaio. Originala OARSOALDEA, S.A.k gordeko du.

j) ABEE formalizatzeari buruzko eskritura: Hautatutako kontratista izanez gero. Gainera, elkarteari emandako IFZa gehituko da.

Aipatu epean errekerimendua behar bezala osatzen ez bada, pertsona lizitatzailleak eskaintza erretiratu duela ulertuko da eta kasu horretan dokumentazio berdina eskatuko zaio hurrengo lizitatzaileari, eskaintzen sailkapen-hurrenkera kontuan hartuta.

Enpresa lizitatuak sektore publikoko lizitatuak eta enpresa sailkatuen erregistro ofizialean inskribatuta dagoenean edo enpresaren espediente birtual, dokumentuen gordetze-sistema elektronikoa edo alde aurretiko sailkapen-sistema bezala Europar Batasuneko Estatu kide baten nazioko datu-basean ageri denean, ez ditu justifikazio-dokumentuak edo bestelako dokumentu-frogak aurkeztu behar, datuak toki horietan inskribatuak egonez gero eta, betiere OARSOALDEA doan sar badaiteke.

Eskaintzak aurkezteko epemugan gaitasuna, kaudimena eta debekurik ez izateari buruzko gorabeherak eta kontratua gauzatzean existitzea.

OARSOALDEA, S.A.k kontratazio-organoaren ebazpenaren bitartez dokumentazioa jaso eta hurrengo bost (5) egun baliadun buruan kontratua adjudikatuko du. Adjudikazioak SPKLk 151. artikuluan adierazitako alderdiak izango ditu, arrazoituko da eta pertsona lizitatuak guztiei jakinarazpena posta elektronikoz bidalita jakinaraziko zaie. Bidezkoa bada, kontratatuak profileen argitaratuko da.

11. KONTRATUA FORMALIZATZEA

Kontratua pertsonari eta gainerako pertsona lizitatuak hautatutako eskaintza jakinarazi eta biharamunetik zenbatzen hasita, gehienez hamabost (15) egun baliaduneko epean formalizatuko da.

Kontratua formalizatzearekin OARSOALDEA, S.A.k kontratu-baimena emango du eta kontratua burututzat joko da.

Pertsona lizitatuak egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua ez bada formalizatzen, OARSOALDEA, S.A.k, osatu bada, behin-behineko bermea konfiskatzeko eskubidea izango du. Hori izan ezean, pertsonak kalte-ordaina eman behar dio eta gehienez aurrekontuaren 100eko 3 izango da.

Kontratua dokumentu pribatu gisa formalizatuko da eta hautatutako pertsonaren kontura dira formalizazioaren ondorioz sortutako gastu eta zerga guztiak. Edozein alde eskritura publiko bihurtzea eska dezake eta eskatzen duenak ordainduko ditu eragindako gastuak.

IV. KAPITULUA

KONTRATUA GAUZATU ETA AZKENTZEA

12. KONTRATUA GAUZATZEA

Kontratua klausulen eta pleguen arabera gauzatuko da eta, gainera, interpretatzeko kontratazio-organoak, edo berak eskuordetzen duenak, ala kontratuaren arduradunak pertsona kontratistari emandako argibideak kontuan hartuko dira.

Kontratua pertsona kontratistaren arrisku eta zorira gauzatuko da.

Pertsona kontratista garatzen dituen lanen kalitate teknikoaren arduraduna izango da. Horrez gain, bere erantzukizunpean egongo dira eskaintako prestazio eta zerbitzuak, baita kontratua

gauzatzean ahazte, akats, metodo desegoki edo ondorio okerrenetatik OARSOALDEA, S.A.k edo hirugarrenek izan ditzaketan ondorioak ere.

Pertsona kontratistak kontratuan definitua ez dagoen edozein lan eginez gero, OARSOALDEA, S.A.k ez du ordainduko. Gauza bera gertatuko da kontratazio-organoak edo kontratuaren arduradunak alde aurretik baimendu ez dituen lanak egiten badira.

Lanak amaitutakoan, OARSOALDEA, S.A.k horiek ebaluatuko ditu eta ixte-bileran hornitzaileari aditzera emango dio. Honako alderdiak balioetsiko dira: esperotakoaren betetze-maila, eritmoak eta epeak, hornitzailearen proaktibotasuna eta asetze-maila orokorra. Ondorio modura, gutxienez puntu sendo bat eta hobekuntza-arloa adieraziko dira.

13. KONTRATUA ALDATZEA

OARSOALDEA, S.A.k kontratua alda dezake, SPKLk 205. artikuluan xedatzen dituen arrazoiengatik.

Kontratuaren aldaketei dagokien prezioa bi aldeen artean modu kontrajarrian finkatu da, pertsona kontratistak eskainitako prezioei erreparatuz.

14. PREZIOA ORDAINTZEA

Azalak "D" ATALEAN zehazten du prezioaren ordainketa-modalitatea. Horretarako, alde aurretik OARSOALDEA, S.A.k lanen adostasuna eman beharko du eta faktura bidaliko da. Kontratua formalizatu arte ezingo da inola ere ordainketarik egin.

Pertsona kontratistak hobekuntzak egiten baditu, ez dira ordainduko hobekuntza horiek kontratuaren arduradunak berariaz baimendu ez baditu.

Plegu honetan aurrez ikusitako ustezkoren batean sartuz gero, OARSOALDEA, S.A.k prezioetik pertsona kontratistak jasan ditzakeen zehapenak kentzeko eskubidea du.

15. EPEAK ETA BERANDUTZEAGATIK EDO AKATSEZ BETETZEAGATIK ZEHAZPENAK

Pertsona kontratistak kontratua azalean eta bere proposamen teknikoan aurkeztutako lan-planean finkatutako epeetan bete beharko du.

Pertsona kontratista edozein epean berandutzen bada, OARSOALDEA, S.A.k ez dio alde aurretik ohartaraziko zehapenak jartzea erabakitzen badu. Izan ere, horiek azalaren "M" ATALEAN aurki daitezke eta OARSOALDEA, S.A.k ordainketei kenduta aplikatuko ditu.

Azken epera edo epe partzialetara iritsita, pertsona kontratista berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik berandutu bada, OARSOALDEA, S.A.k egiteke dituen ordainketetatik azkenean adostutako prezioaren % 10eko zehapena deskonta edo erreklama diezaiokie.

Kontratistaren akats, urritasun edo hutsegiteengatik eskainitako zerbitzuak kontratatutako prestazioari egokitzen ez bazaizkio, OARSOALDEA, S.A.k zerbitzuak ezets ditzake eta ordaintzez salbuesia geldituko da. Gainera, kontratua azkentzea erabaki dezake eta pertsona kontratistak hitzartutako azken prezioaren % 10eko zehapena ordaindu beharko du.

Pertsona kontratista berandutzeagatik kalte-galerak sortuz gero, kalte-ordaina ordaindu beharko dio OARSOALDEA, S.A.ri, hala badagokio eta zehazpenaren zenbatekoak ez du alderdi horrez salbuetsiko. Horrez gain, OARSOALDEA, S.A.k kontratua suntsiarazteko eskubidea mantendukok du.

16. GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Lan-baldintzak

a) Adjudikatutako lanak egiteko langileei dagokienez, pertsona kontratistak indarreko legedia zorrozki beteko du hurrengo arloetan: lana, gizarte segurantza, segurtasuna, desgaituak integratzea eta lan arriskuak prebenitzea, baita, azkenekoari eutsiz, prestakuntza soziala ere. Hala balego, bere langileekiko azpikontratatari ere lanaren eremuan indarreko araudia betearazteko konpromisoa hartzen du. Nolanahi ere, OARSOALDEA, S.A.k kalterik ez du izango kontratua gauzatzen ari den bitartean eremu horietan gertatutako gorabeheren ondorioz edozein erreklamazioren aurrean. Erakunde hauetan lortu ahal izango da indarrean dauden obligazio eta xedapenen informazioa: Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Saileko Laneko eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritza.

b) Kontratistak langile guztiak norberaren babes-ekipo homologatuz hornituko ditu, kontratuaren lanetarako arriskuak aztertu ostean, lan-arriskuak prebenitzeko planaren arabera horiek aplikagarriak badira eta, gainera, ekipoak erabiltzeko prestakuntza jaso dutela ziurtatuko du.

c) OARSOALDEA, S.A.k eskatzen badio, pertsona kontratistak dokumentazio guztia aurkeztu beharko du, dokumentatuak gelditu behar duten betebeharrak guztiak betetzen direla ziurtatzeko.

Zerbitzua eskaintzeko atxikitako langileei dagokienez kontratistaren betebeharrak

1. Zerbitzua eskaintzeko esleitutako langileak eskusiboki pertsona kontratistaren mende egongo dira eta, ondorioz, berak bakarrik izango ditu enplegu-emailearen izaerari atxikitako eskubideak eta betebeharrak.

2. Eskusiboki pertsona kontratistari dagokio langileak hautatzea, pleguetan eskatutako titulazioaren eta esperientziaren baldintzak betez gero, kontratua gauzatzeari atxikitako lantaldea era dadin. Dena den, "erakunde kontratugileak" baldintzak betetzen direla egiaztatzeke aukera du.

3. Pertsona kontratista lantaldeak egonkortasuna izan dezan saiaturiko da. Ildo horri jarraiki, konposizioan aldaketek puntualak izan beharko lukete eta arrazoi justifikatuak izan beharko lituzkete, zerbitzuaren funtzionamendu ona ez asaldatzeko (eskakizun hori justifikatzen duten arrazoiak daudenean). Hala ere, une oro "erakunde kontratugileari" jakinaraziko zaio.

4. Kontratua gauzatez arduratuko den lantaldeko kideen gainean pertsona kontratistak egiaz, eraginkortasunez eta etengabe erabiliko du enpresa orori atxikitako zuzendaritza-gaitasuna. Bereziki, bere gain hartuko ditu ordainsariak negoziatzea eta ordaintzea; baimenak, lizentziak eta oporrak ematea; baja edo lan-utzialdiaren kasuetan langileak ordezkatzeko; gizarte segurantzaren arloan legezko betebeharrak erreparatzea, kotizazioak eta dagokionean prestazioak ordaintzea barne; lan arriskuak prebenitzeko legezko betebeharrak kontuan hartzea;

diziplina-ahalmena erabiltzea; eta enplegu-emaille eta langilearen arteko kontratu-harremanaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak betetzea.

5. Pertsona kontratistak bereziki zainduko du kontratua gauzatzeari atxikitako langileek beren jarduera garatzea, kontratuaren xede diren pleguetan mugatzen den jarduerari dagokionez funtzioak gainditu gabe.

6. Pertsona kontratistak kontratua bere bulegoetan edo instalazioetan garatu beharko du, baldintza teknikoaren pleguaren edo plegu honen azalaren babesean, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakunde, organismo edo entitateen bulegoetan zerbitzuak eskaini behar direnean eta berariaz baimendu denean izan ezik. Halakoetan, erakunde kontratugileak pertsona kontratistaren esku langile publikoak betetzen dituztenekiko lan-espazio bereziak jarriko ditu. Aurrekoari eutsiz, pertsona kontratistaren ardura da zerbitzuei atxikitako langileek esleitu zaien kokapena errespetatzea. Kontratuaren xedearen izaerarengatik zerbitzuak etengabe sektore publikoa osatzen duten erakunde kontratugilearen zentroetako ondasun edo instalazioetan eskaini behar badira, pertsona kontratistak prestazioa hasi baino lehen kontratua gauzatzeari atxikitako langileak gizarte segurantzian alda emanda eta afiliatuak daudela egiaztatatu beharko du.

Ingurumenaren arloan baldintza orokorrak

Pertsona kontratistak bere eragiketek edo azpikontratistenek natur ingurunean edo animalia eta landareengan eragin negatiboa izatea saihestuko du. Halaber, eragiketetan izan litekeen edozein gorabehera gutxienera murrizteko edo indargabetzeko neurriak hartuko ditu.

Pertsona kontratistak lanak burutzen diren bitartean, "INGURUMEN ADIERAZPENEAN" zehazten diren konpromisoak bete beharko ditu. Erakunde hauetan lortu ahal izango da indarrean dauden obligazio eta xedapenen informazioa: IHOBE sozietate publikoa.

Lanak amaitutakoan, azkenean egin diren joan-etorrien eta hartutako neurrien arabera, pertsona kontratistak OARSOALDEARI hurrengo datuak aurkeztuko dizkio, ingurumen-konpromisoak bete dituela justifikatzeko:

A.- Lanean zehar egindako aurrez aurreko bileren kopurua:

- Bileretan parte hartu duen pertsona kopurua
- Generoa
- Erabilitako garraio-bitartekoa (zehaztu)
- Ibiliko distantzia (km)

B.- Lanean zehar garatu den audio/bideokonferentzien kopurua, Skype erabiliz egindakoak barne.

Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko gizarte-baldintzak

Kontratistak, lanak burutzen dituen bitartean, "EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN ALDEKO KONPROMISOAREN ADIERAZPENEAN" zehazten diren konpromisoak bete beharko ditu.

Erakunde hauetan lortu ahal izango da indarrean dauden obligazio eta xedapenen informazioa: EMAKUNDE Erakunde Autonomoa.

Hizkuntza-baldintzak

Kontratueta hiru garrenekin edo, oro har, herritarrekin harremanak izan behar badira edo horiei zerbitzuak eskaini behar bazaizkie, komunikazioan, idatziz eta ahoz, enpresaren eta kontratua gauzatzeko erabiltzaile edo pertsonen artean, kasuak kasu, erabiltzaileak edo hirugarrenak hautatzen duen hizkuntza erabiliko da.

Berariaz aukerarik ez denean adierazten, enpresa adjudikaziodunak pertsona fisiko eta juridikoentzat egiten duen jakinarazpen eta komunikazio oro bi hizkuntza ofizialetan burutuko da. Hala eta guztiz ere, edozein unetan herritarra bere hizkuntza-aukeraren eskubideaz baliu daiteke eta hizkuntza ofizial bakarria erabiltzea eska dezake.

Kontratuaren ondorioz entregatu behar diren agiriak 2 hizkuntza ofizialetan idatziko dira. Nolanahi ere, OARSOALDEA, S.A.REN hizkuntza-politikan xedatutakoa errespetatu beharko da eta, horretarako, www.oarsoaldea.eus web orrian argitaratua dago.

Hirugarrenen baimena

OARSOALDEA, S.A.k bere gain hartzea egokitzen jotzen dituen kontratuak eta gestioak alde batera utzita, pertsona kontratistak partikular, elkarte, enpresa eta erakundeen aurrean beharrezkoak diren baimenak eta lizentziak lortuko ditu, lana behar bezala gauzatzeko badira. Baimenek izan dezaketeko kostua eskusiboki pertsona kontratistaren kargura izango da.

Konfidentzialtasuna

Informazio konfidentzialtzat joko da informazio oro (pertsonala, kontratuarena, bankukoa, teknikoa edota merkataritzakoa), kontratatutako zerbitzua eskaintzean kontratistak eskura izanez gero edo ezagutzen badu.

Pertsona kontratistak informazio konfidentziala izaera horrekin tratatzeko konpromisoa hartzen du eta, ondorioz, eskusiboki plegu honetan deskribatutako helburuetarako erabiliko du. Ez die hirugarrenei hedatuko eta ez du jendearen aurrean jarriko, ezta edozein modutan publiko eta irisgarri bihurtu ere.

Pertsona kontratistak informazioari buruz konfidentzialtasun zorrotza mantentzeko konpromisoa hartzen du. Ildo horri eutsiz, sekretuaren eta konfidentzialtasunaren eskakizunaz ohartaraziko die bere langileei, bazkideei eta edozein pertsonari, kontratistarekin harremana izateagatik, lortu behar badu OSARSOALDEA, S.A.rekin sinatutako kontratuaren betebeharrei behar bezala erantzuteko.

Pertsona kontratistak edo aurreko idatz-zatian aipatutako pertsonak kontratatutako zerbitzua eskaintzeko OARSOALDEA, S.A.k eskuratutako informazio konfidentziala ezingo dute erreproduzitu, aldatu eta publiko egin. Era berean, ez diete hirugarrenei zabalduko.

OARSOALDEA, S.A.k alde aurretik baimendu gabe, pertsona kontratistak entregatu zaion dokumentu edo elementurik ez du kopiatu edo erreproduzitu, oso-osorik edo zati batean

informazio konfidentziala izanez gero. Salbuespena da zerbitzua bera eskaintzeko beharrezkoa suertatzea.

Kontratatuak zerbitzuaren ezaugarriak kontuan hartuta, pertsona kontratistak dokumentuak edo elementuak, baita kopiak berak ere, entregatu zituen aldeak eskatu ostean eta beranduenen kontratatutako prestazioa amaitutakoan itzuliko ditu.

Eskakizun hori betetzen ez bada, legediaren ondorioz pertsona lizitatzailerak izan ditzakeen erantzukizunez gain, OARSOALDEA, S.A.k pertsona adjudikaziodunari kalte-galerak erreklama liezazkioke.

Datu pertsonalak tratatzea

Lanbide-zerbitzuen zerrenda honek eskatu osteko datu pertsonalen tratamendua du eta ERAKUNDE KONTRATISTA da tratamenduaren arduraduna Europar Parlamentuaren edo Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Araudiak, datu pertsonalak tratatzeari eta datu horien zirkulazio libreari dagokionez pertsona fisikoak babesten dituenak eta 95/46/EB Zuzentaraua indargabetzen duenak, (datuak babesteko araudi orokorra) (aurrerantzean, DBO), baita gainerako datu pertsonalak tratatzeari buruzko araudi aplikagarriak ere xedatutakoari jarraiki. Erakunde hauetan lortu ahal izango da indarrean dauden obligazio eta xedapenen informazioa: Datuak Babesteko Euskal Agentzia.

Tratamenduaren erantzulearen argibideak

Kontratuaren izaera eta irismena kontuan hartuta, ERAKUNDE KONTRATISTAK OARSOALDEA S.A.k eskatu ondoren tratatzen dituen datu pertsonalak bakarrik kontratuaren xedea betetzeko erabiliko dira. Informazioa soilik OARSOALDEA, S.A.k ematen dituen argibideekin bat tratatuko da.

Konfidentzialtasunaren eskakizuna

ERAKUNDE KONTRATISTAK, tratamenduaren erantzulea den neurrian, datu pertsonalak tratatzeko baimendutako pertsonak berriaz konfidentzialtasuna errespetatu eta sekretuaren eskakizuna mantenduko dutela bermatuko du, baita kontratua amaitutakoan ere bai. Eskakizun hori betetzea dokumentatua eta OARSOALDEA, S.A.ren esku egongo da. Hirugarrenei ez zaizkie datuak jakinaraziko, OARSOALDEA, S.A.k berriaz baimentzen ez badu.

Segurtasun-neurriak

ERAKUNDE KONTRATISTAK berriaz aitortuko du neurriak hartu dituela eta mekanismoak ezarri dituela ondorengorako:

- Tratamendu-sistemen eta -zerbitzuen konfidentzialtasuna, osotasuna, eskuragarritasuna eta erresilientzia iraunkorrak bermatzeko.
- Gorabehera fisiko edo teknikoak izanez gero, ahalik eta azkarren datu pertsonalen eskuragarritasuna eta atzipena lehengoratzeko, ezinbesteko arrazoietan izan ezik.
- Tratamenduaren segurtasuna berma dadin, erregulartasunez neurri teknikoak eta antolakuntzazkoari buruzkoen eraginkortasuna egiaztatuz, ebaluatuz eta balioztatuz.

- Datu pertsonalei goitizena jarri eta horiek enkriptatzeko, bidezkoa bada.

Betetzen dela frogatzeko OARSOALDEA, S.A.rekin lankidetzan jardutea

ERAKUNDE KONTRATISTAK lankidetzan jardungo du eta OARSOALDEA, S.A.ren esku informazio guztia eskura jarri ere bai, datu pertsonalak babestearen arloan eskakizunak betetzen direla frogatzeko.

Azpikontrazioaren araubidea

ERAKUNDE AZPIKONTRATISTAK kontratu honen xede diren prestazioak ez azpikonttratatzeko konpromisoa hartzen du, horietan datu pertsonalak tratatu behar badira. Salbuespena izango dira, zerbitzuek ohiz funtzionatzeko zorrozki beharrezkoak diren zerbitzu osagarriak.

Tratamenduren bat azpikonttratatzea beharrezkoa balitz, aldez aurretik eta idatziz OARSOALDEA, S.A.ri jakinaraziko litzaioke 10 egun baliodun lehenago. Azpikonttratatu nahi diren tratamenduak adierazi eta argi eta garbi identifikatuko dira enpresa azpikonttratista eta harremanetarako datuak. Azpikonttratazioa zehaztutako epean OARSOALDEA, S.A.k kontra egiten ez badio gauzatu ahal izango da.

Azpikonttratista ere tratamenduaren arduraduna da eta, modu berean, tratamenduaren erantzuleak agiri honetan zehazten dituen eskakizunak bete beharko ditu. Halaber, OARSOALDEA, S.A.k emandako argibideei erreparatuko die.

ERAKUNDE KONTRATISTARI (hasierako arduraduna denez) dagokio erlazio berria arautzea, arduradun berriak baldintza (argibideak, betebeharrak, segurtasun-neurriak...) eta eskakizun formal berdinak izan ditzan datu pertsonalen tratamendu egokiari eta nahasitako pertsonen eskubideak bermatzeari dagokienean.

Arduradunordeak betetzen ez badu, eskakizunak betetzeari buruz erantzulearen aurrean ERAKUNDE KONTRATISTAK erantzukizun osoa izaten jarraituko du.

Interesdunen eskubideak

ERAKUNDE KONTRATISTAK OARSOALDEA, S.A.ri laguntzeko konpromisoa hartzen du, honako eskubideak erabili nahi direnean:

- Atzitu, zuzendu, deuseztatu eta kontra egitea.
- Tratamendua mugatzea.
- Datuak eramatea.
- Banakako erabaki automatizatuen xede ez izatea, profilak egitea barne.

Interesdunak ERAKUNDE KONTRATISTAREN aurrean arestian aipatu diren eskubideak erabiltzen dituenean, OARSOALDEA, S.A.ri jakinaraziko dio berehala, eskaerari erantzuteko informazio adierazgarriarekin batera.

Datuen jomuga harremana amaitutakoan

ERAKUNDE KONTRATISTAK prestazioa amaitutakoan, mandatu honen ondorioz tratatuko dituen datu pertsonalak suntsitzeko konpromisoa hartzen du. Hala eta guztiz ere, prestazioa gauzatzetik erantzukizunak izan daitezkeenean, behar bezala blokeatuta dagoen kopia kontserbatzeko idatziz baimena eskatuko du.

Lagatzea eta azpikontratatzea

- a) Kontratu honen xede diren zerbitzuak eskaintzean ezingo zaizkio hirugarrenari laga.
- b) Plegu honen xede diren zerbitzuen zati bat edo guztiak azpikontratatzea bakarrik onargarria da OARSOALDEA, S.A.k alde aurretik baimentzen duenean.

17. EGINDAKO LANEN JABETZA ETA JABETZA INDUSTRIAL NAHIZ INTELEKTUALAREN ESKUBIDEAK

Edozein fasetan egindako lanak OARSOALDEA, S.A.renak dira.

Plegu honetan aurrez ikusitako kontratazioaren bitartez, OARSOALDEA, S.A.k egun indarreko legediak aurrez ikusten duen eperik zabalenerako jabetza industrial eta intelektualaren eskubide guztiak ditu, kontratatutako lanen ondorioz industria-aplikazioa edo ustiapen ekonomikoa badute.

Eskubide horiek bereganatzeko edo idatziz jendaurrean jasota gelditzen dela bermatzeko pertsona kontratistak OARSOALDEA, S.A.k behar dituen dokumentu guztiak sinatuko ditu.

Kontratuaren xede diren lanetatik pertsona kontratistak dokumentazioa, diseinuak, irudiak, informazioa edo datuak erabili nahi baditu, alde aurretik eta idatziz OARSOALDEA, S.A.k baimendu beharko dio.

18. KONTRATUAREN ARDURADUNA

OARSOALDEA, S.A.k kontratuaren arduraduna izenda dezake, SPKLk 62. artikuluan xedatutako baldintzetan ikuskapen- eta aholkularitza-funtzioekin.

19. KONTRATUA AZKENTZEA/SUNTSIARAZTEA

Kontratu hasieran aurrez ikusitako epea betetzeagatik azkenduko da.

Kontratu suntsiarazteko arrazoiak ondorengoak dira:

- SPKLk 211. eta 313. artikuluetan aurrez ikusten dituenak.
- Hasieran hitzartutako baldintzetan zerbitzua ezin gauzatu izana, 204. eta 205. artikuluetan xedatutakoarekin bat ezin daitekeenean kontratua alda.
- Azpikontratazioaren arloan eskakizunak ez betetzea.

- Kode Zibilak jasotzen dituenak.

20. KONTRA EGITEA, ESKUMEN AGINPIDEDUNA

Kontratu hau prestatu edo adjudikatzean planteatzen diren alderdiak ebazteko, Errenteriako Udalaren aurrean administrazio-errekurtsoak jar daitezke, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkideari buruzkoak, xedatutakoarekin bat.

Obra-kontratuetan balio zenbatetsia hiru milioitik gorakoa bada eta hornidura eta zerbitzuen kasuan, balio zenbatetsi hori ehun mila eurotik gorakoa izanez gero, errekurtsu berezia jar daiteke. Horretarako, egintzak SPKLk 44. artikuluko 2. atalean adierazitakoak izango dira.

Kontratazioaren arloan errekurtsu berezia, SPKLk 44. artikuluan araututakoa, administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri baino lehen ipiniko da eta bere eremuan ohiko administrazio errekurtsua jartzea ez da bidezkoa suertatuko.